

	Espedientea: / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2024WDIZ0004
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	00434 - 2024/3/25
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	285 / 2024
	Titularra: / Titular:	EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO IBILALD
	Ordezkarria: / Representante:	GARIKOITZ MEABE SORAZU
	Gaia: / Asunto:	IBILALDIA : 2024ko dirulaguntza

285/2024 ALKATE DEKRETUA

Bizkaiko ikastolen eta euskararen aldeko festa, Ibilaldia, Getxoko SAN NIKOLAS IKASTOLAK antolatuko duen Ibilaldia aurrera eramateko IBILALDIA elkarteak (G95300174), Ibarako udalari 2024ko martxoaren 25ean egindako eskaeran (0434 erregistro zenbakia) dirulaguntza eskatu zion.

Aipatu eskaeran adierazten den moduan, San Nikolas Herri Ikastolaren zehar lerroak dira Euskararen sustapena bultzatzea, Sexu eta generoari loturiko rolak gainditzea, antolatzen dituzten ekintza guztietan jasangarritasunaren ikuspuntua txertatzea, Ibilaldia prozesu parte-hartzailea izatea; ikastolako eta herriko eragile guztien artekoa, berdintasun-ezberdintasuna bultzatzea, behar desberdinetako pertsonentzako Ibilaldia diseinatuz, hau da, denontzako Ibilaldia garatu

Ibarako udala bat dator Ibilaldia 2024 ekintzarekin lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarako udalak 2024ko maiatzaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Ibilaldia.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Bizkaian ez dagoelako euskara, parekidetasuna/hezkidetza, jasangarritasuna eta parte hartzea sustatzea helburua duen beste festarik, eta ondorioz, bera bakarra dela.

Kontuan harturik, Euskara arloko diru-laguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.04 2024 diru-partida.

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundearen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Diruz laguntzea Ibilaldia 2024 proiektua Euskararen sustapena bultzatzea, Sexu eta generoari loturiko rolak gainditzea, antolatzen dituzten ekintza guztietan jasangarritasunaren ikuspuntua txertatzea, Ibilaldia prozesu parte-hartzailea izatea; ikastolako eta herriko eragile guztien artekoa, berdintasun-ezberdintasuna bultzatzea, behar desberdinetako pertsonentzako Ibilaldia diseinatuz, hau da, denontzako Ibilaldia garatzea bilatzen duelako.

BIGARRENA.- Aipatu diru-laguntza 800 €koa izango da eta Ibilaldia 2023 egitasmoa antolatzen duen IEUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO IBILALDIA ELKARTEA Elkarteari (G95300174) ordainduko zaio ES55 2095 0114 60 9118937686 kontu korrontean.

HIRUGARRENA.- Aipatu kopurua 2024ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.04 2024 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako diru-laguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administrazioetik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen

BOSGARRENA.- Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko, Ibilaldia 2024 ekimenaren antolatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute 2025eko urtarrilaren 31a baino lehen:

 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA	Espedientea: / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 2024WDIZ0004
	Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	00434 - 2024/3/25
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	285 / 2024
	Titularra: / Titular:	EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO IBILALD
	Ordezkarria: / Representante:	GARIKOITZ MEABE SORAZU
	Gaia: / Asunto:	IBILALDIA : 2024ko dirulaguntza

a. Jardueraren memoria, diru-laguntza jaso duen ekintzarena.

b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZAIZPIGARRENA.- Diru-laguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

BEDERATZIGARRENA.- Aipatutako akordioaren berri udalbatzari emango zaio egiten duen lehen bilkuran.

Ibarra, 2024ko maiatzaren 13an

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



EKS | CSV: ESKU4837feaa-063d-4b47-a99e-e7532e1d1b43

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024WDIZ0001-Dekretua/Dekretua ()